

EAEko gero eta gazte gehiago hurbiltzen da Bidezko Merkataritzara


15 eta 29 urte bitartekoen % 60k Bidezko Merkataritzako produktuak erosi izan dituzte inoiz

Datorren maiatzaren 10ean **Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna** dela-eta, Bidezko Merkataritzako produktuen kontsumoa aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#), EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan. Aztertutako datuak [2010](#)ean eta 2013an kontsumoari buruz egindako bi ikerketatik eratorri dira.

Euskadiko gazteen kontsumo-azturak aztertzea izan da bi ikerketen helburua. Horretarako, arreta handiagoa jarri da kontsumo hori gauzatzeko moduan, kontsumitzen den horretan edo kontsumitutako kopuruan baino. Era berean, ahalegindu gara identifikatzen zein neurritan ohartzen diren gazteak edozein produktu edo zerbitzu kontsumitzeak dakartzan inplikazioez -pertsonalak, sozialak eta ingurumenekoak-.


Bi ikerketak konparatuta, zera antzeman daiteke: 18 puntu igo dela Bidezko Merkataritzako produktuak inoiz kontsumitu dituztenen ehunekoak: 2010eko % 42tik 2013ko % 60ra.

Neskek hein handiagoan kontsumitzen dituzte Bidezko Merkataritzako produktuak, mutilek baino (% 64k eta % 55ek, hurrenez hurren). Bidezko Merkataritzako produktuen kontsumoak gora egiten du adinean gora egin ahala: 25 eta 29 urte bitartekoen % 64k horrelako produktuak kontsumitu dituzte inoiz.



Zehaztu beharra dago ehuneko horiek ez direla horren altuak, Bidezko Merkataritzako produktuak kontsumitu ohi dituztenei erreparatzen badiegu. Gazteen % 7k erosi ohi dituzte Bidezko Merkataritzako produktuak. Alabaina, goranzko joera antzeman daiteke Bidezko Merkataritzako produktuak sarri erosten dituztenen ehunekoan, izan ere, 2010ean gazteen % 4 baino ez ziren.

Datuak lurralde historikoen arabera aztertuta, Araba da horrelako produktuak noizbait kontsumitu dituztela dioten gazteen ehunekorik altuena duen lurraldea. Jarraian, Bizkaia dator (% 61) eta, azkenik, Gipuzkoa (% 54).



EAEko gazteei buruzko datu gehiago kontsultagai [Gazteen Euskal Behatokiko estatistiketan](#).

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

